

ERLOJUAREN ORRATZAK

Zizurkilgo etxe txiki batean erloju bat bizi zen. Munduko erlojurik politena zen eta berak bazekien. Horregatik oso harroa zen. Kolore gorrixka bat zeukan, puntu berdez inguratuta. Bere orratzak urrezkoak ziren eta oso garbia zegoen, egunero garbitzen baitzuten.

Egun batean, etxeko umea jolasten zebilela, erlojua hartu eta, eskuak izerdiz bustiak zeuzkanez, lurrera erori zitzaion. Inor konturatu baino lehen bere lekuan utzi zuen baina ama etorri zenean, orratz bat falta zitzaiola konturatu zen.

-Xabier, zuk puskatu al duzu erlojua?- galdetu zion amak.

-Ez ama. Gaur ez naiz egongelara sartu eta erlojua hemen dago- erantzun umeak.

-Pena bat da baina urrezko orratza hartu eta bestea basurara bota beharko dugu.

Orratzik gabe ez du ezertarako balio.

Esan eta egin. Minutu gutxietan basuran aurkitu zuen bere burua.

-Nola ausartu dira ni basurara botatzen? Bi orratzen bila aldegitea izango dut hoberena. Gainera hemendik ateratzeko gogoz irrikatzen nago- pentsatu zuen.

Handik atera bezain laster, oso zikina zegoen, baina bera ez zen konturatu eta bere bidean aurrera jarraitu zuen.

Egunak eta egunak ibili ondoren, itsaso batera ailegatu zen. Igeri ez zekien baina, hala ere, uretan sartzea erabaki zuen. Sartu, sartu zen baina ezin izan zuen atera. Gero eta beherago joaten zen eta ezin zuen arnasik hartu.

Handik zebilen izurde bat paseatzen. Erlojua ikustean bere ahoan hartu eta abiadura bizian kostaraino eraman zuen. Izurdea oso txinxoa zenez, segituan galdetu zion:

-Nola etorri zara honaino?

Eta dena azaldu ondoren, erlojuak galdetu zion:

-Nola gurutzatu dezaket itsasoa?

-Nik eramango zaitut, lasaitu –erantzun izurdeak.

Bere bizkar gainean eseri eta itsasoa zeharkatu zuen. Eskerrak eman ondoren erlojuak bere bideari ekin zion.

Laster mendi handi eta polit batera ailegatu zen. Hau eskalatu ondoren, oso nekatuta geratu zen. Baso eta zuhaitz artean kobazulo beltz bat aurkitu zuen. Barrura sartu zenean, oinotsak nonahi entzuten ziren. Bat-batean, itzal beldurgarri bat ikusi zen paretan. Orduan, sorgin granotsu itsusi bat azaldu zen.

-Je, je, je. Beno, beno, zer daukagu hemen? Erloju nazkagarri bat. Nere katutxoarentzako afaririk hoberena!

-Mesedez, barka nazazu. Hemendik oso urrun dagoen herri batetik nator eta ez nekien kobazulo hau zure etxea zenik –erantzun zion erlojuak beldurturik .

-Barkatuko dizut eta, gainera, erloju konpontzailearen etxerako bidea erakutsiko dizut, baian baldintza batekin. Hiru osagai hauek ekarri behar dizkidazu nire afarirako: Arrano Arraroaren bost arrautza, itsasoko ur gaziko hogeit hamar litro eta Everest mendiko “Yeti”aren ipurdiko bi ile- esan zion sorginak.

-Bainoa hori ezinezkoa da! Nola ekarriko dizkizut gauza guzti horiek?

-Nahi duzun bezala baina aste bat bakarrik uzten dizut. Ez bazara itzultzen zure bila joango naiz.

Eta erlojua basoan zehar ibiltzen hasi zen, Arrano Arraroaren arrautzak non ote zeuden pentsatuz. Horrela zebilela, ipotxa bat azaldu zitzaion.

-Nor zara zu? Hemen ezin zara egon. Lur hauek nire nagusiarenak dira, Arrano Arraroarenak.

-Begira, sorginak esan dit zure nagusiaren bost arrautza behar ditudala, bestela, bere katu gaiztoaren afaria izango naiz –azaldu zion gure erlojuak.

-Nahi baduzu hiru emango dizkizut, baina bost ez, inola ere ez.

-Ondo da, emazkidazu hiru- esan zion erlojuak, ideia bat bururatu baitzitzaion. Baina utzi ni bakarrik joaten, nik aukeratu nahi ditut eta.

-Bale, niri berdin zait- erantzun zion ipotxak, nahiko tontoa baitzen.

Arrautzen gelara iritsi ondoren, bost arrautza hartu eta poltsa batean sartzen ari zenean...

-Lapurra! Lapurra! Bost arrautza hartu ditu!

Baina erlojua leiho batera joan eta, kristala puskatuz, bota egin zen. Handik urruntzeko ahaleginez abiadura bizian korrika hasi zen.

Jada bost arrautzak zeuzkan, baina oraindik ur-gaziko hogeit hamar litro eta “Yeti”aren ipurdiko ileak falta zitzaizkion.

Ez zekien zer egin. Itsaso bat ezagutzen zuen baina urrutiegi zegoen. Aurrera jarraitzea izango zela ideiarik hoberena erabaki zuen. Ordu asko gelditu gabe ibiltzen egon ondoren oso nekatuta zegoen, gainera, iluntzen hasia zen. Sagarrondo baten azpian eseri eta, segituan lo hartu zuen.

Gauerdian, erlojua esnatu egin zen eta berriro lo hartzen saiatu arren, ezin lortu, zarata beldurgarri asko entzuten baitzituen. Ustekabean, ahots bat entzun zuen:

-Nor zara zu? Zer egiten ari zara nire enborraren kontra?

-Ahhhhhhhhhh! Ezaidazu ezer egin, mesedez! –garrasi egin zuen erlojuak.

-Lasaitu zaitetz, ez dizut ezer egingo. Ni sagarrondoa naiz eta baso handian bizi naiz. Urrunetik al zatoz?-galdetu zion zuhaitzak.

-Beno, nahiko urrunetik, bai –erantzun zion erlojuak.

-Zer egiten ari zara hemen? –jarraitu zuen galdetzen sagarrondoak.

Eta bere abenturak kontatu ondoren, pentsakor jarri zen zuhaitza.

-Hemendik ez oso urrun itsaso bat dago.

-Zenbat denbora irauten du bidaiak? –galdetu zion erlojuak

-Ez dakit zehazki, bi hilabete oinez gutxi gora behera.

-Ene! Hori gehiegi da! Nik sei egun baino ez ditut –kexatu zen erlojua.

-Badakit zer egingo dugun! Nire lagun erbi korrikalariak lau ordutan eramango zaitu hara. Segituan deituko diot.

Eta hostoen artetik mobil bat atera zuen bere lagunari deituz. Bi segundutan han zegoen erbia energiagaz beterik.

-Kaixo laguna. Zertarako deitu didazu? –galdetu zion erbiak.

-Begira, hemen daukazun erloju polit hau itsasora eraman behar duzu- esan zion sagarrondoak.

-Ez dago gauza errazagorik.

Eta erlojua bizkar gainean hartuta, handik ikusi beharreko abiadurarekin, alde egin zuen. Sagarrondoak esan zion bezala lau ordu baino lehenago iritsi ziren itsaso sakonera.

-Hemen bukatu da bidaiak, lagun. Joan beharra daukat, nire haurrak nire bila egongo baitira.

Eta hau esanda, erbia urrunerantz korrika hasi zen erlojua bakarrik utziz.

-Beno eta, orain, nola hartuko ditut hogeit hamar litroak? –esan zuen erlojuak.

-Horregatik ez dago arazorik. Ni itsaso zabala naiz eta nahi duzun ur guztia daukat- esan zion itsasoak.

-Bai, baina nola jasoko dut ur guzti hori? –galdetu zion erlojuak larrituta.

-Ikusten duzu kostan dagoen saski hori? Ba, ekarri eta jarri zuhaitz horien aurrean. Nik olatuak sortuko ditut eta horrela saskia bete egingo da, hogeitroko edukiera baitauka- lasaitu zuen itsasoak.

-A ze ideia ona! Munduko hoberena esango nuke nik! Eskerrikasko!

Esan eta egin. Itsasoak olatu handi bat sortu eta hogeitroko saskia bete zuen. Eskerrak eman ondoren, bere bideari ekin zion “Yeti”aren ileen bila.

Ez zekien zer egin edo nora joan. Everest mendia oso urrun zegoela bazekien baina; nola iritsi hara?

Gauza hauek pentsatzen zihoan bitartean, bere tamaina berdina zuen txingurri bat azaldu zitzaion.

-Arazo larri bat daukat, oso larria –erantzun zion erlojuak.

-Zein da ba? –ekin zuen txingurriak.

-Ez dut uste zuk lagundu diezakedazunik, baina hor doa: Everest mendiko “Yeti”aren ipurdiko bi ile behar ditut.

-Nik ezin dizut lagundu, baina badut Everest mendian bizi den lehengusina bat. Gutun bat idatziko diot zu hara zoazela esanez eta ze hegazkin hartu behar duzun galdetuz. Gaur gaua nire etxean pasa beharko duzu, ez da oso handia baina nahikoa gu biontzako.

Eta, horrela, erlojuak txingurriaren etxean egin zuen lo.

Hurrengo goizean, lehengusinarekin gutuna erantzunarekin atean zegoen irekitzeko zain. Hau da gutunaren kopia bat:

“Lehengusu maitea:

Ez dakit nor den zure lagun hori, baina nire etxeko atea irekita
Daude berarentzako. Egunkarian begiratzen egon naiz eta gaur, 4:30etan,
Everest mendira zuzenean datorren hegazkin bat dago. Ni aireportuan
Zure lagunaren zain egongo naiz”.

Gutuna irakurri bezain laster, txingurriak eskumuturrean zuen ordulariari begira jarri ziren biak.

-Ordubiak dira. Ordu t’erdi aireportura joateko eta ordu bat ticketa hartu, maletak utzi eta hegazkinera igotzeko –esan zuen txingurriak-. Nik erakutsiko dizut aireporturako bidea.

Eta bi lagunak harantz abiatu ziren. Ticketa hartu eta, maletan utzi ondoren, hegazkinera igo zen bere lagun berriari agur esanez.

Everestera iritsi zenean, segituan ikusi zuen Samantha, (horrela izena zuen Everesteko lehengusinak) ez baitzegoen beste txingurririk aireportu osoan.

-Ongi etorri Everestera lagun, zer moduz zaude? –agurtu zion Samanthak.

-Milesker.

-Nire etxea han dago. Afaltzen dugun bitartean kontatuko dizut dena.

Eta horrela afarian...

-Zerk ekarri zaitu honaino? –galdetu zion Samanthak.

-“Yeti”aren ipurdiko bi ile behar ditut kobazulo beltzean dagoen sorgin granodunari emateko. Bestela, bere katu beltzaren afaria izango naiz –azaldu zion erlojuak.

-Ja, ja, ja! Ze gezurtia zaren! Niri engainatu nahi didazu. Zer uste duzu, tuntuna naizela, ala?

-Ez, ez, egia da. Sinestezina dela badakit, baina egia era bai –esan zion erlojuak.

-Beno, baina zuk benetan, zer nahi duzu nigandik? –jarraitu zuen Samanthak.

-Esan dizut, ba. “Yeti”aren ipurdiko bi ile.

-Esaten duzuna ez dut sinisten, baina egia izan arren, ezingo ginateke gu biok bakarrik joan, arriskutsuegia da.

-Samantha, ba al daukazu gaurko egunkaria –galdetu zion misterioz beteriko aurpegi batekin.

Bi minutu egon zen orriak aurrera eta atzera pasaz. Samanthak lasai-lasai kafea edaten ari zela,erlojua, mahai gainean zegoen kafea botaz, oihuka hasi zen

-Aurkitu dut! Aurkitu dut!

-Zer da aurkitu duzuna?

-Begira hemen behean dagoen albiste honi, bihar hiru gizon Everest-a igotzen saiatuko dira –esan zion erlojuak.

-Bai, lehenago irakurri dut, eta...?

-Ez al duzu ulertzen? Beraiekin joan gaitezke eta nere ileak lortu.

-Ongi da, joango gara. “Yeti” ari ikusteko irrikitan nago, baina ni ez naiz berarengana hurbilduko.

Eta hurrengo egunean hiru gizonekin zihoazen biak. Elurra nonahi ikusten zen bide erditik zihoazenean. Momentu horretan, aztarna erraldoi batzuk ikusi zituzten. Denek hauek jarraitzea erabaki zuten. Aztarnak kobazulo beltz, busti batera eraman zituzten lagunak.

-Ze beldurra dudan, Samantha. Ez gara hor sartuko, ez da?

-Baietz uste dut erlojutxo. Baina lasaitu zaitez, mesedez. Ni oso beldurtuta nago baina sartu egingo naiz –erantzun zion txingurriak.

Eta biak eskutik helduta kobazulora sartu ziren. Aurrera jarraitu orduko, hiru gizonak eta erlojua oihuka hasi ziren. Baina Samanthak ez zien sinistu.

-Ez, ez dizuet sinistuko. Ni beldurtu nahi nauzue! –buila egin zuen.

Baina “Yeti”ak hanketatik hartu eta buruz behera jarri zuen bere ipurdiaren altueran. Samanthak egoera horretaz baliatuz, ipurditik bi ile kendu zizkion “Yeti”ari. Min handia egin zionez, Samantha askatu zuen eta hau lurrera erori zen. Korrika atera zen handik.

Erlojua eta hiru gizonak kanpoan zeuden.

-Samantha, bizirik zaude!- esan zuen harrituta erlojuak.

-Noski baietz, baiian etxean egoteko irrikitan nago.

-Guk etxeraino lagunduko dizuegu, hainbeste beldur pasa dugu jada ez dugula gorago joan nahi.-esan zuen hiruretako azkeneko gizonak.

Eta horrela bostak etxerantz abiatu ziren.

Etxean zeudela Samanthak poz ederra eman zion erlojutxoari:

-Oraindik sorpresa bat daukat zuretzat.

-Zein da? –galdetu zion erlojuak.

-“Yeti”aren ipurdiko bi ile!

-Eskerrikasko, Samantha. Orain sorginarengana joan naiteke –eskertu zion erlojuak.

-Gaur arratsaldean sorginaren kobazulora doan hegazkin bat dago. Hori hartu beharko zenuke.

Bere lagun berria agurtu ondoren, hegazkinera igo zen erlojua sorginaren etxerantz abiatuz.

Iritsi zenean, sorgina asko harritu zen.

-Benetan harrigarria da. Ni askotan saiatu naiz baina ezin izan dut gauza guzti horiek lortu. Osagai hauek “Armiarma Errea” prestatzeko dira. Hainbeste eskertzen dizut nigandik egin duzuna, nik neuk jarriko dizkizudala orratzak.

Sorginak, orduan, makiltxo miragarria hartuz, kolpe batzuk eman, hitz magiko batzuk esan eta... erlojua, berriro, bi orratzekin ikusi zen, hasieran bezain lirain eta dotore.